

DIRU ITURRIAK

Material eta produktu guzti hauetarako behar den inbertsiorako, finantzaketa handi bat behar izan dugu. Finantzaketa hau, hainbat lekutik atera da. Hasteko, gure herriko udaletxeak zozketan jarri zuen diru laguntzatik 4000€ lortu genituen. Ondoren Eusko-Jaurlaritzak eskaintzen ditu diru laguntza proiektu berritzaileentzat , hortik, 5500€ lortu ditugu. Gobernu eta udaletxeen diru laguntzen gain, interesatuta zegoen enpresa batek laguntza eskaini digu, 6000€.Bukatzeko, diru laguntzen gain falta izan den diru proiektua burutu ahal izateko gure poltsikotik atera da, aurreztuta genuena erabiliz.

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/2022ko-egoera-larrian-dauden-pertsonentzako-dirulaguntzak/web01-tramite/eu/>

Diru-laguntzak (udaletxea)	Urte batean	4000€
Diru-laguntzak (Eusko-Jaurlaritza)	Urte batean	5500€

Noski eskaintzen ditugun zerbitzuekin diru sarrerak ditugu. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu eta bakoitzak denbora eta kostuaren arabera prezio ezberdinak dituzte. Supermerkatuko erosketak egin eta etxera eramatea, 20€ -ko prezioa du. Etxea garbitzeak 30€-ko prezioa. Pertsonak mugitu ahal izateko garraioa eskaini eta eraman orduen arabera ordaintzen da, ordu bat 25€-ko prezioa. Azkenik, zerbitzua eskatzen duten zaintza eta konpainia orduen arabera ordaintzen da, 20€-ko prezioarekin.